



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hurrengo batean ikusiko dugu elkar zoriontasunaren iraultzan

2016ko martxoan hasi nintzen GAUR8 aldizkariako hilabetearen behin idazten, eskaini zidatelako eta gustatzen zaidalako hainbat gairen inguruan solastatzea eta hausnartzea. Gaurko honetan agurra idazteratzen, sei urtez idazten egon ondoren atsedenaldirik baten beharra sentitzen dudalako, eten bat egin eta freskaldi bat hartzeko beharra.

2016ko martxoko lehen iritzi artikuluan nire aitari idatzi nion eskerrak ematen, eta harrezkeroztik gai mordoa eta nire bizitzan garrantzitsuak izan diren pertsonen eta pertsonen idatzi dut zuzenean edo zeharka. Baita ere nire ikaskuntzan eta bide pertsonalean garrantzitsuak izan diren gaiez ere: harremanak, dolua, sexualitatea, inbidiak, maskulinitatea eta feminismoa, abusu sexualak, suizidioa, nerabeak...

Gaurkoan, ibilbide txiki hau amaitu nahi nuke nire amari eskerrik beroenak ematen, bere pozaldi eta ezintasunetan bere modura presente egon zelako, eta senari kasu egiten bere ondoan ikasi nuelako. Izan ere, denboraren poderioz ohartu naiz uste ona baino askoz gehiago ikasi nuela bere alboan, bere altzoan... Memento txarrenetan ere saiatu zelako guk ezereen falta ez izaten, bere modura maitasunaren hazia landatu zuelako.

Bizitza eman zidalako, eta esentzia. Eta Ama guztion lehengaia izanik, ezin agurtu bera aipatu gabe eta eskertu gabe. Ni ez nintzatekeelako bera gabe.

Bestetik, aipatu nahiko nuke gaur egun bizitzen ari garenean angustia eta beldurraren garaia. Gaur egungo kazetaritzaren mezuaren aldaketa beharra, covid-19 garaia ikaragarria izan

zen eta hain gertu izanik ematen du ahaztu dugula... Ordutik aurrera, sententzia daukat ez ote duen guztiz indarra hartu angustia eta beldurraren mezuak, jendartea paralizatuz eta depresio orokorrean sartuz.

Albisteak entzun besterik ez daude: Ukrainako gerra, argindarraren prezioaren igoera, krisi ekonomikoa, gaixotasunak, eguraldia bera ere gaixotu dugu... Kontsultan jendea beldurturik eta angustiatuta ikusten ari gara, entzuten duten guztia katastrofikoa delako, eguna eta oraina zoriontasunean ezin bizirik...

Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke, hausnartu zertan ari garenean eta zer lortu nahi dugun al-

biste hauek guztiak behin eta berri etengabe gure jendarteari eskaintzen. Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke, kazetaritza esparru berri bat osasuntsua, alaia... eguneroko bizitzan mila gauza, ekitaldi, ekimen eta egitasmo sortzen direlako osasunaren inguruan, bizipoza- ren alde, elkar zaintzaren alde, autogestio emozionalaren alde...

Gizarte bezala gaixotzen ari gara, angustiak eta beldurrak gain hartuta.

Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke lehenbailehen, irribarra eta zoriona, elkar zainketa eta norbere zainketa landuz, tribuari indarra emanez eta natura errespetatuz... Zoriontasunaren iraultzan elkartuko gara! •



Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke.

Idoia ZABALETA | FOKU